


Año LII. urtea

129 - 2020

Urtarrila-ekaina

Enero-junio



FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

Euskalkien sailkapen berriaz zenbait ohar

Koldo ZUAZO ZELAIETA

Euskalkien sailkapen berriaz zenbait ohar

Observaciones sobre la nueva clasificación de los dialectos vascos

Some remarks on the new classification of Basque dialects

Koldo ZUAZO ZELAIETA
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
koldo.zuazo@ehu.eus

DOI: <https://doi.org/10.35462/FLV129.8>

Jasotze data: 2020/04/17. Behin-behineko onartze data: 2020/04/27. Behin betiko onartze data: 2020/04/30.

LABURPENA

Euskalkien sailkapen berria izeneko liburuan (2019) aurkeztu den ikuspegia dut aztergai. Helduleku bakarrean oinarrituta dago: Euskaltzaindiaren atlasean. Atlasen zuzentasunaz mintzo naiz oro har eta, zehatzago, atlas honen egokitasunaz. Oinarri bakar hori azken urteotan agertu diren beste ikerlan batzuetako emaitzekin ez kontrastatzea aipatzen da. Ondoren, sailkapen berriaren egileek darabilten metodologia eta ondorioak aztertzen dira.

Gako hitzak: dialektologia; dialektoen sailkapenak; euskalkiak; *Euskararen herri hizkeren atlas*.

RESUMEN

En este artículo comento el libro *Euskalkien sailkapen berria* (2019) [“Nueva clasificación de los dialectos vascos”], basado en los resultados del atlas lingüístico de la Real Academia de la Lengua Vasca. Se ponen de manifiesto los defectos que, en general, se observan en los atlas de este tipo y, muy especialmente, en este de Euskaltzaindia. También se discuten algunos aspectos de la metodología seguida por los autores de la nueva clasificación dialectal.

Palabras clave: dialectología; clasificación dialectal; dialectos vascos; atlas lingüístico de la Real Academia de la Lengua Vasca.

ABSTRACT

In this article I analyze the book *Euskalkien sailkapen berria* (2019) [“New classification of the Basque dialects”], based entirely on the Linguistic Atlas developed by the Royal Academy of the Basque language. I comment on the shortcomings that this kind of linguistic atlas quite generally has and I point out the shortcomings that the atlas made by the Royal Academy of the Basque language has in particular. I criticize that the authors of the new classification have not contrasted their findings with the advancements made in Basque dialectological research over the last years. I also discuss the methodology followed and the conclusions reached by the authors of the new dialect classification.

Keywords: dialectology; dialect classification; Basque dialects; the speech atlas of the Basque language.

1. SARRERA. 2. IKERKETAREN OINARRIA. 2.1. Euskal dialektologiaren egoera 1980ko hamarkadan eta geroztiko ikerketak. 2.2. Galdetegiaren ziurtasuna. 2.3. Nolako galderak, halako erantzunak. 3. SAILKAPEN BERRIAREN METODOLOGIA. 3.1. Zein ezaugarri hartu kontuan. 3.2. Zenbat ezaugarri hartu kontuan. 3.3. Irizpideen gardentasunaz. 3.4. Datuak nola erabili. 4. BESTE ZENBAIT OHAR. 4.1. Sailkapenen sinkroniaz. 4.2. ‘Tarteko hizkerak’. 4.3. Izan zirelako gara. 4.4. «Bulegoko dialektologia». 5. ERREFERENTZIAK.

1. SARRERA

Euskalkien sailkapen berria izenburuarekin agertu da Gotzon Aurrekoetxea, Iñaki Gaminde, Jose Luis Ormaetxea eta Xarles Videgainen zuzendaritzapean egindako liburua (2019). Orain arte Euskal Herrian ibili diren bideetatik aldendu eta, euskalkiak sailkatzeko beste metodologia bat baliatuta, haren araberrako sailkapen berria aurkeztu dute. Ondorengo lerroetan ohar batzuk egingo ditut horren gainean. Alde batetik, euren ikerketa egiteko baliatu duten heldulekuaz jardungo dut; bestetik, erabili duten metodologiaz; amaitzeko, beste zenbait ohar erantsiko ditut.

2. IKERKETAREN OINARRIA

Helduleku bakarria baliatu dute lan honetan: Euskaltzaindiaren (2008-) *Euskararen herri hizkeren atlasa* (EHHA). Egileen iritzian, oinarri egokia da, baina nik badauzkat neure dudak.

Gaia kokatze aldera, gogora ekar dezadan EHHA 1980ko hamarkada hasieran abiatutako egitasmoa dela. Galdetegi bat da: 2857 galderaz osatua; gehienak (2163) lexikoari dagozkio, 595 morfologiari, 62 sintaxiari –baina «sintaxia» oso modu zabalean hartuta– eta 37 fonetikari. Euskal Herri osoko 145 herritan egin zen: 36 Bizkaian, beste 36 Gipuzkoan, 27 Nafarroan, 18 Nafarroa Beherean, 15 Lapurdin, 12 Zuberoan eta 1 Araban.

Hiru gertakari nabarmenduko ditut horren inguruan: *a)* helduleku bakarria sekula ere ez dela oinarri nahikoa; *b)* tankera horretako galdetegiak sekula ere ez direla guztiz

ziurrak; c) euskal dialektologia oso maila apalean zegoela 1980ko hamarkadan, EHHA egituratu zen garaian. Hirugarren gertakari honetatik abiatuko naiz, berau delako esanguratsuen.

2.1. Euskal dialektologiaren egoera 1980ko hamarkadan eta geroztiko ikerketak

Euskaltzaindiak euskararen atlasari ekin zionean, diktadura militar luzea eta gogorra pasatu berri zuen Hego Euskal Herriak. Hain zuzen, orduantxe abiatu ziren euskal filologia ikasketak Deustun eta Euskal Herriko Unibertsitatean. Atlasa osatzeko galderak, gehienbat, hiru iturri hauetatik hartu ziren:

- a) Koldo Mitxelenaren *Fonética histórica vasca* (1961ean argitaratua eta 1977an osatua).
- b) Resurrección María Azkuek, Euskaltzaindiaren babesarekin, 1920ko hamarkada hasieran antolatutako *Erizkizundi Irukoitza* galdetegia, Ana María Echaidek (1984) egokitua.
- c) Pedro Yrizarren *Contribución a la dialectología de la Lengua Vasca* (1981).

Gaurko egoeratik begiratuta, oso oinarri ahula dauka, garaian zegoena.

Hain zuzen, ondorengo urteetan hasi ziren filologia fakultateetako emaitzak ikusten, han ikasten eta irakasten aritutako ikertzaileek egindakoak. Dialektologia alorrean, gutxienez ere doktore tesi hauek egin dira harrezkero:

- a) Hizkera jakin bat aztergai dutenak: P. Salaburu (1984): Baztan; J. M. Etxebarria (1991): Zeberio; J. Arretxe (1994): Basauri; O. Ibarra (1995): Ultzama; I. Camino (1997): Aezkoa; J.-B. Coyos (1999): Arbaila (Zuberoa); J. L. Erdozia (2001): Sakanako erdigunea; I. Epelde (2003): Uztaritzeko eskualdea; J. Uriarte (2003): Fruiz; E. Montoya (2004): Urdazubi-Zugarramurdi; J. L. Ormaetxea (2006): Aramaio; E. Zelaieta (2008): Baztan-Bidasoa; J. M. Makazaga (2010): Elgoibar; A. Apalauza (2012): Imotz-Basaburua-Larraun-Araitx.
- b) Hizkuntzaren arlo jakin bat aztergai dutenak: R. M. Pagola (1992): Nafarroako mendebaleko fonetika; J. Alberdi (1996): aditz alokutiboa; E. Barrutia (1996): Bermeo eta Mundakako arrantzaleen hiztegia; N. Areta (2003): Eibarko izen sintagmaren morfologia; J. M. Elexpuru (2004): Bergarako hiztegia. Euskal Herritik kanpo, José Ignacio Hualderen (1991) *Basque Phonology* argitaratu zuen Routledge argitaletxe ezagunak.

Tesiak izan ez arren, beste ikerlan dialektal esanguratsu batzuk ere agertu dira EHHAeko galderak osatu eta gero. Hauexek dira, herrialdez herrialde, hizkera jakin bat aztergai dutenak:

- a) Bearnoan: P. Etxegorri (2003, 2012): Jeruntze.

- b) Bizkaian: X. Burgete & I. Gaminde (1991): Otxandio; J. I. Hualde & X. Bilbao (1992): Getxo; J. I. Hualde, G. Elordieta & A. Elordieta (1994): Lekeitio; A. Errazti (1994): Iurreta; F. Aranberri (1996): Ermua; I. Román (2001): Berriz; B. Salazar (2001): Ugao; B. Bilbao (2002a, 2002b): Bermeo; P. Mugarza (2006): Mallabia; A. Agirrebeña & J. M. Elexpuru (2014): Elorrio.
- c) Gipuzkoan: J. Arin & J. Arruabarrena (1989): Ataun; I. Iturain & L. Loidi (1995): Orio; I. Fraile & A. Fraile (1996): Oiartzun; A. Labaka, M. E. Azurza & J. I. Bereziartua (1996): Lasarte-Oria; J. Larrañaga (1998): Antzuola; J. Elortza, E. Garro, J. L. Ormaetxea, J. M. Garai & E. Plazaola (1999): Arrasate; J. L. Agirretxe, M. Lersundi & O. Olaetxea (2000): Pasaia; J. L. Agirretxe & I. Esnaola (2000): Lezo; I. Hurtado (2001): Goierri-Tolosaldea; K. Etxabe & L. Garmendia (2003): Zaldibia, (2004): Ordizia; X. Lasa (2004): Urretxu-Zumarraga; T. Sagarzazu (2005): Irun-Hondarribia; A. Sarasua, A. Agirrebeña & L. Zenarruzabeitia (2005): Eibar; A. Agirrebeña, B. Maiz, F. Muniozguren, A. Sarasua & M. Zabaleta (2007): Zarautz; A. Agirrebeña, I. Alberdi, X. Mendiguren & A. Sarasua (2007): Beasain; R. Altuna, K. Elortza & K. Zumalde (2014): Oñati; A. Agirrebeña, A. Sarasua & M. Zabaleta (2017): Getaria.
- d) Lapurdin: H. Duhau (1993-2003): Beskoitze.
- e) Nafarroan: J. Cabodevilla (1991): Aezkoa; M. Olano (1998): Areso-Leitza; J. J. Zubiri & P. Perurena (1998): Arano-Goizueta; O. Ibarra (2000): Esteribar-Erroibar; P. Salaburu & M. Lakar (2005): Baztan; A. Apalauza (2008): Imotz.
- f) Nafarroa Beherean: I. Camino (2016): Amikuze.

Hiztegi dialektalak ere agertu dira:

- a) Bizkaian: A. Pérez (1991): Bermeo; E. Barrutia (2000): arrantzaleen hiztegia; S. Azketa (2002): Fika; I. Mallea (2002): Mendata; I. Gilisasti (2003): Urduliz; A. Martínez de la Cuadra (2006): Nabarniz; A. Larrea & J. Rekalde (2010): Arratia.
- b) Gipuzkoan: A. Azpeitia (2003): Zestoa; S. Basauri & A. Sarasua (2003): Eibar; J. Pikabea (2005): Aginaga-Usturbil; A. Azpiazu (2009): Brinkola-Legazpi; A. Beristain (2018-2019): Azpeitia.
- c) Nafarroan: M. Izeta (1996): Baztan; J. L. Erdozia (2004): Sakanako erdigunea; M. Olano (2005): Leitza; O. Ibarra (2007): Esteribar-Erroibar; P. Salaberri & P. Kamino (2007): Luzaide; J. Navarro, J. Navarro & M. L. Andueza (2009): Lizarraga-Ergoiena; K. Artola (2014): Nafarroa; O. Lujanbio (2018): Goizueta.

Nafarroako ekialdeko eremu aztertu gabeen egindako grabazioak transkribatu eta argitaratu ditu Koldo Artolak *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian: Artzibar (2006-2014);

Auritze-Orreaga (2015); Erroibar (2015-2018); Olaibar (2019). Juan Manuel Etxebarriak, era berean, Bizkaiko hego-mendebalekoak argitaratu ditu (Etxebarria, 1995, 2016).

Gainera, beste lau lan handi hauek ere badira: Aranzadi Zientzia Elkartearen *Euskal-lerriko atlas etnolinguistikoa* (1984-1990); P. Yrizarren Euskal Herriko aditz laguntzailearen gaineko 14 aleak (1991-2002); J. I. Hualderen *Euskararen azentuakerak* (1997) eta euskalkiez eta dialektologiaz Iñaki Caminok (2009) egindako teoria lana: *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi*.

1980tik honako lau hamarkadetan mugarri sendoa da Iñaki Gaminderen emana. Luzeegi egingo litzateke haren lanak banan-banan zerrendatzea, baina, besterik ez bada ere, hauexek nabarmenduko ditut: Bizkaiko aditzaren gainekoa (Gaminde, 1985a), Nafarroako aditzaren gainekoa (Gaminde, 1985b), euskararen azentuaren gainekoa (Gaminde, 1998) eta «berbarik berba» izenburuarekin egindako hamar hiztegiak (*Bakio berbarik berba, Zamudio berbarik berba...*). Gogora ekar dezadan, gainera, Iñaki Gaminde eta Pedro Yrizar izan direla Euskal Herria bere osotasunean aztertu duten bakarrenetakoak.

Ez dut 1980tik hona agertu den guzti-guztia aipatu, baina zerrenda zehatz samarra osatu dut, argi ikus dadin zenbat aurreratu den tarte horretan eta, bestalde, ikerlanak Euskal Herriko bazter askotan egin direla. Euskalki sailkatzaile berriek, ostera, ez dituzte aintzakotzat hartu; izan ez balira bezala jokatu dute.

Azken batean, berez oinarri ahulekoa zen heldulekua hartu, eta helduleku hori beste ezerekin ez osatzea, arinkeria metodologiko galanta iruditzen zait.

2.2. Galdetegiaren ziurtasuna

EHHA bezalako galdetegiak sekula ere ez dira erabat ziurrak. Nahitaezkoa da galdetegiari erantzuteko aurkitzen ditugun lagunak zeregin horretarako egokiak izatea, eta horretan beti asmatzea ez da batere erraza. Gurea ez den herri batera bertako hizkera aztertu nahian goazenean, euskaraz «ondo» dakitenengana bideratu ohi gaituzte eta, euskaraz «ondo» dakiten horiek bateko eta besteko euskara entzun dutenak, hedabideetako euskara barneratu dutenak eta, azken batean, nola edo hala euskara landu dutenak izaten dira. Eta euren herriko eguneroko bizimoduan erabiltzen den hizkeraren orde, euren iritzian jatorragoa, jasoagoa eta zuzenagoa den bat ematen digute maiz.

Bestalde, galdegileak eta galdetuak hizkera desberdina egiten dutenean, bigarren honen bestearen hizkerara hurbiltzeko ahalegina egiten du, eta bere hizkera den bezala erabili orde, elizan, hedabideetan... entzun duenera jotzen du, horrela errazago eta erosoago elkar ulertuko dutelakoan. Gogoan izan behar dugu, gainera, badirela «ospea» daukaten hizkerak (Tolosakoa, Sarakoa, Hazparnekkoa, gaur egun euskara batua), eta baita ospe txarra daukatenak ere, eta bigarren multzo honetako hiztunak beti ahalegintzen dira «zabarrak» edo «zakarrak» iruditzen zaizkien esamoldeak baztertu eta «hobeagotzat» dauzkatenak erabiltzen, are gehiago galdegilea «Euskaltzaindiaren» izenean etorri zaienean.

Gauza da galdegilea, bere eskualdean dabilenean, laster ohartzen dela galdetuak herriko hizkera zintzo erabiltzen duen ala ez; baina galdegileak berea ez den eskualdetik urrundu eta jasotzen ari den hizkera behar bezala ezagutzen ez duenean, ez dauka horretaz jabetzeko modurik. Arrisku horien inguruan sarri mintzatu dira mundu zabaleko ikertzaileak; William Labov-en (1972) *Sociolinguistic patterns* aspaldikoa da horren adibidea.

Ni neu lanean ibili naizen lekuetan ere, hain zuzen, EHHAeko emaitzak eta nik bildu ditudanak ez dira sarri bat etorri: Urdiainen, Araitzen, Saran eta Baigorri aldean (Aldude, Bidarrai, Baigorri) gertatu zait hori eta, neure ibilbide luzean harri horrekin behin eta berriz topo egin dudanez, aspaldi –2005ean– erabaki nuen nonbaiteko hizkera aztertu nahi nuenean, bertan bizitokia hartu eta bertan egon behar nuela aldi luze batez, bertako beste edozein herritarrek egiten duen bizimodua eginez. Eta horixe egin dut harrezkero: hilabete edo bi hilabete eman dut zenbait urtez aztergai nuen lekuan.

Ziur nago –halaxe egiaztatu dudalako– EHHAean denetarik dagoela. Iruditzen zait galdegileen inguruko herrietako emaitzak zuzen samarrak izango direla, baina gainekoetakoak zuhurtzia handiz hartu behar dira. Hauxe esan nahi dut: sailkapen berriaren egileek EHHAeko emaitzak zuzen bakarrak balira bezala hartu dituzte, ez dute beste batzuekin alderatzeko eta kontrastatzeko beharrik ikusi, eta hori ez zait iruditzen jokabide egokia.

2.3. Nolako galderak, halako erantzunak

Galdetegi bat ona izango bada, zer galdetu jakin behar da, eta egoera horretatik urrun geunden 1980ko hasieran; arestian esan dut euskal dialektologia oso maila apalean zegoela sasoi hartan.

Euskalkien sailkapen berriaren egileek EHHAean galdera asko egin zirela diote, eta eurek ere ezaugarri asko hartu dituztela kontuan, sailkapena egin dutenean. Baina ezaugarrien zenbatekoa ez da axola duen bakarra, haien nolakotasuna da esanguratsuagoa.

Adibide gutxi batzuk aipatuko ditut, esan nahi dudana erakuste alde. Galdetzen baldin badugu nola esaten den ‘*seme*’ Euskal Herrian, euskalki bakarra dagoela ikusiko dugu, euskaldun denok esaten dugulako *seme*.

Aldiz, ‘*edalontzi*’ nola esaten den galdetzen badugu, euskalki bi daudela ikusiko dugu: *a*) zuberotarra (*godalét* esaten duena) eta *b*) bestea (*baso* esaten duena). ‘*Goraintziak*’ nola esaten den galdetzen badugu, berriz, beste euskalki bi agertuko zaizkigu: *a*) erdialdekoa (*eskuminak* esaten duena) eta *b*) bestea (*goraintziak* esaten duena). Era berean, ‘*inor*’ nola esaten den bada galdera, beste euskalki bi agertuko zaizkigu: *a*) nafar-lapurtarra (*nehorlnihor* esaten duena) eta *b*) bestea (*iñorliyorlihur* esaten duena).

Azken batean, euskalkien arabera zer aldatzen den zuzen ez baldin badakigu, ezin izango dugu galdera egokirik egin, eta horixe da EHHAean gertatzen dena: galdera asko itsu-itsuan egin zirela. Galdera ugari egin ziren, bai, baina horietako asko interes

dialektal gabekoak dira, orokorrak direlako, Euskal Herri osoan berdin esaten direnak: *seme* bezala, *adar*, *aldi*, *ama*, *ardi*, *aste*, *asto*, *atzo*, *begi*, *beso*, *erbi*, *erdi*, *erle*, *etzi*, *gatz*, *gorri*, *gose*, *idi*, *lodi*, *mendi*, *odol*, *sagar*, *txar*... Eta, ostera, euskalkien arabera aldatzen diren beste gauza asko ez ziren galdetu, 1980 aldean ezezagunak zirelako, edo galdete-gia egituratu zutenek ezagutzen ez zituztelako.

Etz dut honekin esan nahi EHHA ez zela egin behar. Inondik inora ere ez! EHHAari esker, gauza gehiago dakigu orain; besteak beste, hurrengoan zer ez den galdetu behar. Esan nahi dudana da tresna hori bera bakarrik hartzea, 1980tik hona egin den aurre-rakuntza kontuan hartu gabe, huts egite nabarmen-gia dela. Gaur egun bertan ere, 2020 honetan, Euskal Herriko eremu zabal asko guztiz ezezagunak ditugu: Ipar Euskal Herri eta Gipuzkoa gehiena, eta Nafarroako eta Bizkaiko hainbat alderdi.

Labur esateko, euskalkien sailkatzaile berriek erabat osoa eta erabat zuzena ez den helduleku batean eraiki dute euren proposamena. Denbora-pasa eta libertimendu moduan egin daitezke horrelako saioak, baina komunitate zientifikoaren aurrean agertze-ko, oinarri sendoa eta kontrastatua da nahitaezko.

3. SAILKAPEN BERRIAREN METODOLOGIA

Euskalki sailkatzaile berriek erabili duten heldulekuari begiratu xume bat eman ondoren, haien metodologiako zenbait alderdi aipatuko ditut jarraian, euren esanetan, horretantxe egin omen dutelako benetako iraultza.

Batetik, ezaugarri guztiak erabiltzearen aldekoak dira, inolako mugarik jarri gabe. Hauexek haien hitzak (9. or.):

Orain arteko sailkapenak hizkuntza-ezaugarrien aukeraketan oinarritu izan dira; al-diz, honetan ez da irizpiderik aukeratu, hizkuntza-alor bakoitzean erabilgarri izan di-ren ezaugarri guztiak erabili dira.

Beheraxeago berriz azpimarratzen dute printzipio bera (15. or.):

Berariaz, baztertu egin da datuen aukeraketa. Datu kopuru handiak erabiltzeak ezaugarriak aukeratzea baztertzen du. Ikertzaileek ezaugarriak ez aukeratzea garrantzitsua da datuen aukeraketan subjektibotasuna baztertze-ko, horrela bakarrik bermatzen baita datuen objektibotasuna. Erabiltzen diren datuak objektiboak izatea, eta ez ikertzaileak aukeratuak, ezinbesteko ezaugarria da ikerketaren fidagarritasunerako.

Bestalde, orain arteko euskalki sailkapenek ez daukatela oinarri garbirik diote (12. or.):

Bonapartek eta Azkuek ez dute adierazten ez zer datu erabili zituzten, ez zer herri-tan jaso zituzten, ez eta zer metodologia erabili zuten euskalkiak eta azpieuskalkiak

finkatzeko. Zuazok ere ez du zehazten nola jaso diren erabili dituen 108 ezaugarriak, ez eta zer metodologia erabili duen eremuak zer euskalki eta azpieuskalkitakoak ziren erabakitzeko.

Gordinago mintzo dira beste pasarte honetan (9. or.):

Sailkatzeko erabili diren prozeduretan ere desberdinak dira: haiek [Bonapartek eta Zuazok] ez dute sailkatze-teknikarik erabili; hemengo honetan, ordea, zientzietan objektuak sailkatzeko erabiltzen diren prozedura eta teknikak erabili dira.

Beste hau ere badiote (40. or.):

Orain arteko euskalki banaketan metodo intuitiboak erabili dira.

Azken hiru pasarteetan esaten dena ez da bakarrik «arinkeria»; «iraina» ere badela iruditzen zait, baina goazen pixkanaka.

Hasteko, euskalkien sailkapen berriaren egileek orain arte hiru sailkapen egin direla diote (11. or.): Bonaparterena, Azkuerena eta Zuazorena. Ez ditut gauzak berdin ikusten: Azkuek ez zuen euskalkiak sailkatzeko helbururik izan. Bonaparterekin bat ez etorri, eta zuzenketa batzuk egin zizkion, beste zenbait lagunek ere egin izan dizkioten bezala: Damaso Intzak (1922a, 1922b), Koldo Mitxelenak (1990/1961), Henri Guiter-ek (1973) edo Pedro Yrizarrek (1991-2002), esate baterako. Euskalkiak sailkatzeko *asmoz eta jakitez* jardun dutenen artean, berriz, Oihenart (1656) eta Larramendi (1729, 1745, 1969) aipatu behar dira. Behar-beharrezkoa iruditzen zait gauza horiek kontuan izatea, pertsona bakoitzaren ekarria egoki neurtu eta kokatuko badugu.

Hori argitu ondoren, natorren metodologia gaietara.

3.1. Zein ezaugarri hartu kontuan

Euskalkien sailkatzaile berriek ez dutela ezaugarriarik baztertu, denak hartu behar direla kontuan diote, baina, nik neuk, ezinbestekotzat jotzen dut aukera batzuk egitea. 1998an hasita gaur arte, muga bi ezarri izan ditut neure azterbidean. Bata zein den, arestian esan dut: ezaugarri komunak, Euskal Herri osoan erabiltzen diren gertakariak, ikerketa dialektaletan alde batera uztea da zentzuzkoena.

Bestea, berriz, hauxe: eremu txikietan erabiltzen diren ezaugarriak ere alde batera uztea komeni da. Esate baterako, Deba ibarreko eta haren ondoko alderdi batean *-ke* atzizkia baliatzen da: *egiteke* ‘egin gabe’; *ikusteke* ‘ikusi gabe’. Dakidanez, zazpi herri-tan baizik ez da agertzen atzizki hori: Elgoibarren (adinekoek), Eibarren, Soraluzen, Elgetan, Bergaran, Antzuolan eta Azkoitian. Horrelako ezaugarriek euskalki barruko hizkerak bereizteko balio dute, baina ez euskalkiak bere osotasunean aztergai ditugunean. Eta EHHAean horrelako galdera asko daude; arrain izenei dagozkienak, esate baterako. Itsasbaterreko herrietarako galdetegi batean agertu behar lirateke horrelako hitzak; ez Euskal Herri osoko atlas batean.

Hain zuzen, euskalkien sailkatzaile berriek ere ezarri dute muga hori; ez da, beraz, egia ez dutela ezer baztertu eta ez dutela ezer aukeratu. Hauexek haien hitzak (20. or.):

Erabaki nagusi bat hartu zen [...]: herrien % 5-ean baino gehiagotan erantzunik ez zuten galderak baztertzea erabaki zen.

Bestalde, aipatu ditudan muga bi horiek jartzeaz gainera, hierarkia bat ere egin dut neure sailkapenetan: *a)* arau gramatikalak, *b)* lexikoa eta aldaerak. Arau gramatikalak modu sistematikoan betetzen dira; esate baterako, hizkera batzuetan *i* bokalak bere ondorengo zenbait kontsonante bustitzen ditu: *makila* > *makilla*; *buruko mina* > *buruko miña*; *iturri* > *itturri*... Araua dagoen hizkeretan infinitu hitzetan gauzatzen da.

Aldiz, lexiko eta aldaeretako desberdintasunak adibide bakarrari dagozkio: *sor-gin* (Euskal Herri osoan) vs *belhagile* (Zuberoan); *apaiz* (Gipuzkoan) vs *apez* (ekialde osoan). Ez zait iruditzen bustiduraren araua –infinitu hitzetan gauzatzen dena– eta lexiko eta aldaeretako gorabeherak –hitz bakarretan gauzatzen direnak– denak maila berean jarri behar direnik.

Bestelakoan, aipatu ditudan muga biak eta hierarkia hori alde batera utzita, eskura izan ditudan ezaugarri guzti-guztiak hartu ditut nik ere kontuan. Ez da, beraz, inondik inora egia ezaugarri gutxi batzuekin, edo ezaugarri batere gabe, modu intuitiboan, jardun dudala euskalkiak bereizten eta sailkatzen. Bestalde, nik ezarritako mugak eta hierarkiak ez dira neuk asmatutakoak izan; gutxi gorabehera esparru zientifiko guztietan jokatzeko da antzera.

3.2. Zenbat ezaugarri hartu kontuan

Begi-bistakoa iruditzen zait zenbat eta ezaugarri gehiago baliatu, orduan eta sailkapen zuzenagoa egin ahalko dugula, hizkuntza orduan eta hobeto ezagutuko dugulako. Horretan ahalegintzen naiz ni ere.

Euskalkien sailkapen berriaren egileek diote (15. or.) nik 108 ezaugarri baliatu ditudala neure sailkapena egiteko eta haiek, berriz, askozaz gehiago: 649. Hori egiaren zatitxo bat besterik ez da. Izan ere, 108 ezaugarri horiek neure lehenengo sailkapenean erabili nituen, 1998an argitaratutako «Euskalkiak, gaur» artikuluan. Iruñeko *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian atera nuen, eta aldizkarietako artikulua orrialde kopuru mugatukoak izan behar direnez, euskalkietan ikusten nituen berrikuntzak edo, behintzat, nik berrikuntzatzat neuzkanak erakustera mugatu nintzen. Baina lanean jarraitzen dut, eta azken berrikusketa 2014an egin dut, *Euskalkiak* liburuan. Liburu hori ez dute aipatu ere egin sailkapen berriaren egileek, baina bertan 335 ezaugarri agertzen dira, gehi hainbat item lexiko eta aldaera (ez dut hartu banan-banan zenbatzeko lana, gehiegi direlako). Ezaugarri bakoitzari zenbakia jartzen diodanez, erraz egiaztatu dezake edonork esaten dudana.

Aldiz, haien 649 ezaugarriak jar daitezke zalantzan. Esate baterako, mendebaleko euskalkiaren ezaugarriak erakusten dituztenean (129. or.), ablatiboko *-ti/-tik* eta motibatiboko *-gaiti/-gaitik* birritan errepikatuta agertzen dira, eta beste birritan hurbiltze

adlatiboko *-rantza/-rantz/-rutz*. Bide batez esateko, tankera horretako akatsek erakusten dute nolakoa den egileen «zorrozatasuna» eta «zientifikotasuna».

Bestalde, *Mendebaleko euskara* liburuan (Zuazo, 2017) 138 ezaugarri erakutsi ditut: 60 dira euskalkiaren ezaugarri orokorrak, 28 azpieuskalkienak eta 50 bertan bereizi ditudan hizkerenak. Gainera, hiztegi bat ere antolatu dut: 678 sarrera eta 54 azpisarrera dauzka. Liburu hori ere ez dute aipatu sailkapen berriaren egileek, baina eurek erabili dituzten mendebaleko ezaugarriak (ik. 128-132 eta 140-143. or.) eta nik erabili ditudan alderatzen badituzte, kopuruaren aldetik behintzat, ez naiz agertzen haien azpian. Dena dela, gorago esan dut: kopurua ez da dena, ezaugarrien nolakotasunak ere badauka esangura. Alde horretatik begiratuta ere, ez zait iruditzen nik erabili ditudan ezaugarriak haienak baino kaskarragoak direnik, baina, jakina, horretan beste epaile batzuek daukate azken hitza.

3.3. Irizpideen gardentasunaz

Orain arteko euskalki sailkatzaileok, Bonapartek eta biok, ez omen dugu garbi adierazi zein datutan oinarritu garen eta non bildu ditugun.

Bonaparteren izenean mintzatuko naiz lehenengo, hura aspaldi zenduta dagoenez, ezin duelako bere buruaren alde egin.

Bonaparteren ibileraren berri duen edonork daki zein herritan jaso zituen bere datuak. Bost aldiz etorri zen Londrestik Euskal Herrira eta goitik behera eta ezker-eskuin zeharkatu zuen gure herria. Hura izan zen, hain zuzen, Euskal Herria bertatik bertara eta bere zabalera guztian aztertzen lehena, ez Oihenart eta ez Larramendi ez zirelako horrenbestera heldu. Ezaguna da, gainera, hainbat itzulpen eginarazi zituela Euskal Herri osoko herri askotako hizkeretara (ik. Arana, 1991 eta Pagola, 1993-1999). Monografia bi ere argitaratu zituen:

1. *Études sur les trois dialectes basques des vallées d'Aezcoa, de Salazar et de Roncal, tels qu'ils sont parlés à Aribé, à Jaurrieta et à Vidangoz* (1872).
2. «Observations sur le basque de Fontarabie, d'Irun etc.» (1877).

Baditu, gainera, hiru txosten labur: Burundako euskaraz (1881a), Ultzamakoaz (1881b) eta Luzaidekoaz (1881c).

Bonaparte hil ondoren, haren beste lan bi argitaratu dira. Koldo Mitxelenak (1958) plazaratu zuen «Un vocabulario aezcoano, salacenco y roncalés preparado por el Príncipe Bonaparte» eta Francisco Ondarrak (1982) «Materiales para un estudio comparativo del vascuence de Elcano, Puente la Reina, Olza y Goñi».

Beraz, argi dago Bonapartek zeintzuk datu erabili zituen eta non jaso zituen. Egia da bere sailkapenak argitaratu zituenean (Bonaparte, 1862, 1867, 1991/1869), ez zituela erabilitako irizpideak zehaztu, baina egia ere bada arestian aipatu ditudan

monografietan eta bere lankideei egindako gutunetan ezaugarri horien berri jakin dezakegula (gutunak ikusteko: Altuna, 1985; Daranatz, 1928-1931; Irigoyen, 1957; Lacombe, 1932-1933; Ruiz de Larrinaga, 1954-1958; Urquijo, 1908-1910).

Bonaparteren sailkapeneko oinarritzko ezaugarriak zeintzuk izan ziren erakutsi nuen (Zuazo, 2014, 20-26. or.) eta hamazazpi dira guztira: 6 fonologia alorrekoak; 4 izenaren morfologiakoak; 5 aditzaren morfologiakoak eta 2 sintaxikoak. Bestalde, euskalki barruko hizkerak eta azpieuskalkiak bereizteko, berak «eufonia bokalikoak» deitzen zituenak aztertu zituen zorrotasun handiz:

- a) *alaba/alabea/alabia/alabie/al(h)abá/alabara.*
- b) *semea/semia/semie.*
- c) *mendia/mendie/mendiyá/mendixa/mendidxe.*
- d) *besoa/besual/besue.*
- e) *burua/burue/buruba/buruya/buria.*

Gaurko ikuspegitik begiratuta, ez dira ezaugarri asko, baina haren aurrekoekin aldeatuta, sekulako urratsa egin zuen. Gainera, Bonapartek erabili zituen irizpideak egoiak iruditzen zaizkit; horrek ere badauka bere balioa.

Bonaparteren jardunaz zertxobait esan ondoren, neure buruaz mintzatuko naiz.

Hasteko, Bonaparteren lanabes guztiak ezagutzen ditut. Baita haren ondoren dialektologia alorrean agertu diren ikerlanak ere; esate baterako, 1980az gero egin direnak eta goiko zerrenda luzean zehaztu ditudanak. Baita, jakina, orain arte plazaratu diren EHHAeko hamar aleak ere. Dударik gabe, horietatik guztietatik elikatu naiz, horien guztien zordun naiz.

Baina, gainera, ni neu ere neure bulegotik atera eta Euskal Herri gehiengan ibili naiz. Monografia hauetan eman dut bildutakoaren berri:

1. «Oiartzungo hizkeraren kokagunea» (1997).
2. *Deba ibarreko euskara. Dialektologia eta Tokiko batua* (2006).
3. *Sakanako euskara. Burundako hizkera* (2010).
4. *Mailopeko euskara* (Araitz, Betelu, Errazkin, Lezaeta-Azpirotz) (2013).
5. Urtzi Goitirekin batera: *Uribe Kosta, Txorierri eta Mungialdeko euskara* (2016).
6. *Sarako euskara* (2018).

Bestalde, Bizkaian eta Deba ibarrean hainbat urte lanean eman ondoren, *Mendebaleko euskara* argitaratu nuen (2017).

Niri dagokidanez ere, beraz, argi dago zer datu erabili ditudan eta non bildu ditudan.

3.4. Datuak nola erabili

1990-91 aldean Burundako euskara ezagutu nuenetik, beti izan dut euskalkien sorlekuak zehazteko eta haietako bakoitzean zer sortu den jakiteko grina. Izan ere, oso nabarra da Burundako euskara: Nafarroa, Gipuzkoa eta mendebaleko ezaugarriak agertzen dira bertan, eta 1990 aldera, euskalki bakoitzaren ezaugarriak zehazki aurkeztu gabe zeudenez, zeregin horri ekin nion.

Dagoeneko plazaratu ditut, zuzen edo oker, euskalkien sorlekuen gaineko zenbait hipotesi (Zuazo, 2010a, 2019). Hasteko, Euskal Herria bitan bereizten duen muga administratiboa hizkuntza muga garbia ere badela erakutsi dut. Hamabosgarren mendeko bazen muga hori eta, harrezkero, sakondu besterik ez da egin. Gaur egun horixe iruditzen zait muga dialektalik garbiena. Horretan, behinik behin, bat datoz nirekin sailkatzaile berriak. Gauza da haiek Ipar Euskal Herriari «ekialdea» deitzen diotela eta nik «Ipar Euskal Herria».

Ipar Euskal Herri horretan «euskalki» bi ikusten ditut: a) zuberotarra eta b) nafar-lapurtarra. Eta zeri deitzen diodan «euskalki»? Ba, berrikuntzak sortzeko eta eremu homogeen samarrean zabaltzeko gaitasuna duen eremuari. Badakit definizio hori ez dutela denek ontzat emango, baina, behinik behin, ezingo du inork esan irizpiderik ez daukadanik eta euskalkiak modu «intuitiboan» sailkatzen ditudala.

Printzipio horren arabera, euskara zuberotarrak oso nortasun markatua dauka, sorleku emankorra izan da (ik. Zuazo, 2014, 147-162. or.). Hango berrikuntzak Zuberoa osora zabaldu dira –ipar-mendebaleko herrixkak dira batzuetan salbuespena– eta, zenbait aldiz, Oztibarrera eta, batez ere, Amikuzera heldu dira. Baita, aspaldi, Zaraitzura eta, batez ere, Erronkarira ere. Baina ez dira Lapurdira eta Nafarroako eta Nafarroa Behereko gainerako alderdietara hedatu; horrexegatik da «euskalki» beregaina.

Euskara nafar-lapurtarra ez da izan hain sortzaile oparoa, baina badira Lapurdiko itsasbazterrean hasi eta Garazi, Oztibarre eta Amikuzeraino heltzen diren ezaugarriak, baina Zuberoara hedatu ez direnak. Gorago aipatu ditudan *nehor* ‘inor’ saileko ize-nordainak dira horren adibide: *nehor*, *nehok*, *nehori*, *nehon* (< *nehoren*), *nehorekin*, *nehorendako*, *nehun*, *nehundik*, *nehorat* jaso ditut, esate baterako, Baigorrrin.

Era berean, *-aia* amaierako hitzak erabiltzen dira eremu zabal horretan, baina ez Zuberoan. Baigorrikoa da atzera berriro lekukotasuna: *bisaia* ‘aurpegia’; *domaia* ‘zoritxarra, lastima’; *estaia* ‘solairua’; *kuraia* ‘adorea, kemena’; *lengoaia* ‘hizkuntza’; *pasaia* ‘pasabidea’; *piaia* ‘bidaia’; *usaia* ‘ohitura’; *salbaia* ‘basatia’ (beste zenbait ezaugarri ikusteko, Zuazo, 2014, 129-133. or.).

Beraz, Lapurdi eta Nafarroa Behere osoan ezaugarri jakin batzuk zabaldu direnez, baina Zuberoara heldu ez direnez, hori ere «euskalki» beregaintzat hartu behar dela iruditzen zait.

Euskara nafar-lapurarraren barruan azpieuskalki bat bereizi dut: Lapurdiko mendebalekoa, itsasbazterrean hasi eta Ahetze-Senpere-Ainhua lerrora heltzen dena. Honi ez diot «euskalki» maila eman, gauza gutxi sortu direlako bertan; NOR-NORI-NORK saileko adizkien orde, NOR-NORK sailekoak erabiltzea da esanguratsuen: *erran zaitut* (ez *erran dautzut*). Hango gainerako bereizgarri gehienak Gipuzkoatik eta Nafarroatik heldu dira. Dena dela, euskara nafar-lapurarrean sartu beharrekoa da, hango ezaugarri orokorrak hemen ere betetzen direlako (ik. Zuazo, 2014, 138-141. or., 2018).

Euskalkien sailkatzaile berriek, ordea, Ipar Euskal Herrian euskalki bakarra eta haren barruan hiru azpieuskalki bereizi dituzte. Hauxe izan daiteke horren arrazoa: EHHAean galdera egokiak egin ez izana. Beharbada horrexegatik ez dira gauzak gardengo agertu.

Gatozen Hego Euskal Herrira. Gasteizek aspaldi izan zuen eragina ekarri izan dut agerira (ikus, gehienbat, Zuazo, 2010a, 2012, 2017, 2019). Iruñarekin batera, hura izan zen aspaldiko beste hiri nagusia eta, aldeak alde, Arabara, Bizkaira, Deba ibarrea, Urolaldera, Goierri eta Nafarroako mendebaleko hiru eskualdetara (Burunda, Ameskoa eta Lana) zabaldu zen haren eragina. Honetan ere nire ikuspegiarekin bat datoz sailkatzaile berriak; haiek ere mendebaleko euskarari «euskalki» maila aitortu diote.

Bada, ostera, beste muga dialektal esanguratsu bat: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa alde batean, eta Nafarroa eta Ipar Euskal Herria bestean, ezartzen dituen (ik. Zuazo, 2010b, 2013, 2014, 229-242. or.). Zaharra da muga hori, 15. menderako agerian dagoena. Gaur egun ere Bortziriak-Malerreka-Ultzama lerrotik ekialdera egiten den euskara haren mendebalera egiten denaren aldean oso desberdina da. Muga horrexegatik, hain zuzen, Nafarroako euskara, Hego Euskal Herriko beste hiru herrialdekoetatik bereizi, eta «euskalki nafarra» izendatu dut. Gainera, badira Nafarroan bertan sortutako zenbait berrikuntza (ik. Zuazo, 2014, 108-112. or.), eta baita Gipuzkoan sortutakoak ere (Zuazo, 2014, 79-87. or.).

Sailkatzaile berriek, ostera, Gipuzkoa eta Nafarroa euskalki berean sartu eta haren barruan azpieuskalki bi egin dituzte. Oraingo honetan ere, beharbada, EHHAean galdera egokiak egin ez izana izan daiteke arrazoa; nire emaitzen arabera, behinik behin, Azkoitia eta Abaurregaina euskalki berean sartzeko desberdinegiak dira.

Behin honetarako gero, ohartxo bat egin nahi nuke euskalkien kopuruaz. Euskalkien sailkatzaile berriak ohartu dira sei euskalki bereizi nituela lehenengo (Zuazo, 1998, 2003) eta bost hurrengo berrikusketan (Zuazo, 2008). Beharbada, nire akatsa edo nire ezjakintasunaren ondorioa izan zela uste dute, baina beste bat da arrazoa. Euskalkiak aztertzen hasi nintzenean, bizirik zeuden Erronkariko eta Zaraitzuko azken euskaldunak eta, nahiz eta hango euskara teknikoki galduta egon, bizirik zeudenenganako

begiruneagatik, euskara hura kontuan hartu nuen neure sailkapenean. Hirugarren berrikusketa plazaratu nuenerako (2008), ez neukan inor bizirik gelditzen zen berririk, eta euskalki galdutzat jotzea eta neure sailkapenean alde batera uztea erabaki nuen.

Metodologiaren gaineko oharren zerrenda amaitu aurretik, beste haxe esan nahi dut. Euskalkien sailkatzaile berriek Dialektometriaren bideari jarraitu diote. Nik neuk ez nuke esango metodo hori, berez, txarra denik, baina hiru ñabardura egingo ditut.

- a) Dialektometria ez da aho batez onartzen den metodoa eta, onartzen ez dutenen artean ez daude, inolaz ere, dialektologo kaskarrenak eta ezjakinenak.
- b) Euskalkien sailkatzaile berriek euren dela metodo «zientifikoa» diote eta, inplizituki, gainerakook amateur ezjakinen pare utzi gaituzte. Atzera berriz esango dut: EHHA eta tankera horretako atlasak helduleku bakartzat hartzea bera da, esate baterako, niri neuri batere zientifikoa iruditzen ez zaidana.
- c) Esku artean datu okerrak edo kopuruz nahikoak ez direnak erabiltzen baldin baditugu, metodorik onena baliatuta ere, emaitza ez da izango sekula ona. EHHA eta gisa horretako atlasak eurak bakarrik hartzen baditugu, ezingo dugu behinbetiko eta erabateko dialekto sailkapenik egin. Atlasak beti izango dira lagungarri, baina «lagungarri» soil; ez oinarri bakar.

4. BESTE ZENBAIT OHAR

Badira liburu horretan beste zenbait kontu, labur bada ere, aipatu nahi ditudanak.

4.1. Sailkapenen sinkroniaz

Liburuaren hasieran aldarri haxe egiten dute euskalkien sailkatzaile berriek (9. or.):

Orain arteko sailkapenak (L. L. Bonaparte eta K. Zuazorenak, batik bat) ikuspuntu diakronikoan eta gramatika historikoaren irakaskuntzetan oinarritzen diren bitartean, esku artean duzun hau ikuspuntu sinkronikoan oinarritzen da.

Arestian ekarri dut gogora Bonaparte bost aldiz etorri zela Londrestik Euskal Herri-
ra eta bazterrik bazter arakatu zuela gure herria. Ondo ezaguna da, gainera, egoitza hartzen zuen lekuetara eramaten zituela bateko eta besteko euskaldunak berarekin lan egitera, eta ondo ezaguna da, era berean, Londresera bertara ere eramaten zituela. Ez zait iruditzen Bonaparteren sailkapena ikuspuntu diakroniko batetik eginda dagoenik: 19. mendeko erdialdean egiten zen euskara erakustea izan zen haren helburua.

Niri dagokidanez ere gauza bera esango dut. 1990ean hasi nintzen grabagailua hartu eta batetik bestera ibiltzen, eta horretan jarraitzen dut gaur egun. Egoten naizen lekuetan adin guztietako hiztunekin elkartzea izaten dut gogoko, baina gramatika eta hiztegi lanak egiteko, gehienbat 40-70 urte bitartekoak hartzen ditut lankide. Azken

batean, 21. mende hasiera honetako euskara aztertzen eta erakusten ari naiz. Jakina, euskalki bat berritzailea edo gordetzailea ote den erabaki behar dudanean, esate baterako, hizkuntzaren iragana hartu behar izaten dut kontuan, baina nire helburua oraingo dialektoak aztertzea izan da, eta da.

Beraz, ez nator bat ikuspuntu sinkronikoan oinarritzen diren bakarrak eurak direla esatearekin eta, bestalde, ñabardura bat egin behar zaio haien «sinkroniari». Izan ere, noizko egoera erakusten du haien sailkapenak? Euskaltzaindiaren datu bilketa 20. mendearen amaieran egin zen eta lekukotzat erabili zituzten hiztunak adin handikoak izan ziren, haietako gehienak hilda daude dagoeneko eta, bizirik leudekeenek ere ez dute egiten 21. mende hasierako euskara, 20. mende hasierakoa baizik. Egia da EHHA oraintxe ari dela plazara agertzen, baina hango hizkera ez da, inondik inora, gaur egun egiten dena. Halaxe aitortzen dute egileek eurek liburuaren amaieran (155. or.). Baina liburuaren amaieran ez eze, izenean bertan aitortu behar zuten hori: *Euskalkien sailkapen berria* deitu ordez, *Euskalkien sailkapen zaharra* izendatu behar zuten.

Eta horrek baditu bere ondorioak. Zugarramurdi eta Luzaide «ekialdeko» euskalkian agertzen dira; beste era batera esateko, Ipar Euskal Herrikoan. Horrela sailkatzea zuzena zatekeen 20. mende hasieran eta, ziurrenera, baita geroago ere, baina ez –erabat, behintzat– gaur egun. Zugarramurdiko egoera gertu samarretik ezagutzen dut, eta hango adineko lagunek saratarren, ainhoarren edo senperrarren antzera hitz egiten dute, baina besterik da gazteekin gertatzen dena: ageri-agerian dago 1950etik hona Ipar eta Hego Euskal Herrien artean ireki den muga. Antzeko egoera ikusten da Luzaiden; Ekaitz Santaziliaren (2009) eta Alexander Artzelusen (2019) ikerketen arabera.

4.2. ‘Tarteko hizkerak’

Zugarramurdirekin gertatzen denak beste auzi bat dakar agerira. Badira eragin bi –edo gehiago– erakusten dituzten herriak: Zugarramurdiri –eta Urdazubiri– dagokienez, Ipar Euskal Herrikoa eta Hego Euskal Herrikoa. Beste hainbat lekutan aurkitu dut antzeko egoera: Amikuzen, Erreterria-Irun-Arano alderdian, Nafarroako mendebalean (Araitz, Larraun, Basaburua, Imotz), Burundan eta Debabarrenean (Elgoibar, Mendaro, Mutriku). Leku horiek euskalki jakin batean argi eta garbi sartzerik ez dagoenez, ‘tarteko hizkera’ deitu eta trama bidez aurkeztu ditut mapetan. Sailkatzaile berrien metodologiak ez du ematen, nonbait, horretarako aukerarik eta, iraganean bezala, lerro bakarrez bereizi dituzte euskalkiak, eten garbiak eginez. Ez zait iruditzen zuzen dabilzanik: dialektoen arteko mugak hori baino nabarragoak dira, gauzak ez dira beti zuri edo beltz.

4.3. Izan zirelako gara

Beti, edo ia beti, izan ohi dugu aitzindarien bat; sekula, edo ia sekula, ez gara hutsetik abiatzen. Bonapartek euskara ikasteari ekin zionean, lehenagoko gramatikagile eta idazleen lanak aztertu zituen. Gu guztiok, era berean, Bonaparteren lanetatik elikatu gara. Egin dezagun kontu, Bonaparte etorri aurretik, Lapurdi barrualdeko euskara, Nafarroa Beherekoa eta Nafarroakoa ia guztiz ezezaguna zela, eta hark urratutako

bidetik ibili gara ondorengoak. Euskalkien sailkatzaile berriek, ostera, goitik behera gaitzetsi eta baztertu dute gure iragana, ohartu gabe EHHAeko galderak antolatzen, esate baterako, iragan hori hartu zela kontuan: hango 2857 galderak ez ziren ezerezetik asmatu.

Sailkatzaile berrien liburuko pasarte harrigarri bi ekarriko ditut hona. Bata hauxe (128. or.):

Lehen aldia da sailkatzeko ikerketetan lau gramatika atal (fonologia, izen-morfologia, aditz-morfologia eta sintaxia) eta lexikoari dagozkion ezaugarriak erabiltzen direna.

Osagai horiek guztiok ageri dira Bonaparteren sailkapenean, eta baita Oihenarten eta Larramendiren sailkapenetan ere. Zertan oinarritu, bestela, dialektoak sailkatzeko eta, azken batean, hizkuntza bat azaltzeko? Hiztunen ahotsaren doinuak? Laster edo motel berba egitean? Goxo edo zakar mintzatzean? «Hamaikatxo ikusteko» jaio omen gara, baina hori ikusi beharra sekulakoa da.

Beste baieztapen hau ere egiten dute (67. or.):

Orain artean euskalkiak sailkatzerakoan ez da sintaxiari dagokion daturik erabili [...] Orain artean ez erabilia izateak izaera berezia ematen dio lan honi eta ezohiko garrantzia.

Bonapartek, esate baterako, kausazko perpausetako *bait-* aurrizkia (*zeren ona baita*) eta galde perpausetako *-a* atzizkia (*egin dia?* ‘egin al du?’) zorrotasun handiz aztertu zituen. Nik, berriz, beste ezaugarri sintaktiko askoren artean, *egin* aditz indartzailea (*etorri egin da* vs *etorri da*); aditz laguntzailea nagusiaren aurretik jartzea (*Donibanen da bizi* vs *Donibanen bizi da*); *ba-* aurrizkia (*norat bagoazi?* vs *nora goaz?*)... aztertu ditut. Garbi dago orain arteko sailkapenetan ere sintaxiak izan duela bere lekua.

4.4. «Bulegoko dialektologia»

Arestian esan dut datu zuzenik gabe, metodorik onenak ere huts egiten duela. Eta arestian esan dut EHHA bezalako atlasetako datu denak ez direla zuzenak izaten; zuzenagoak betiere hiztunen hizkera laxoan, lagunartean daudenean erabiltzen dituztenak. Askotan gertatu ohi da hiztunari zerbait galdetu eta haren erantzuna eta, gero, hizkera laxoan darabilen jokamoldea guztiz alderantzizkoak izatea. Sailkatzaile berriak ez dira, nonbait, horretaz ohartu. Salbuespen bakar batekin –Iñaki Gaminde–, gainerakoak ez dira euren euskalkiaren eremutik askorik urrundu eta, hori egin gabe, ezin da hizkuntzaren muinera ganoraz heldu. Bulegoko lana eta kanpokoa uztartzen ez badira, ezin da zuzen asmatu.

Dena dela, euskalkien sailkatzaile berriek etorkizunean ere lanean jarraitzeko asmoa agertu dute. Ea hurrengoan hobeto jokatzaren duten. Egin ditudan oharrek zerbaitetarako balio badute, nire helburua beteta legoke.

5. ERREFERENTZIAK

- Agirrebeña, A., Alberdi, I., Mendiguren, X. & Sarasua A. (2007). *Beasaingo euskara*. Beasain: Beasaingo Udala.
- Agirrebeña, A. & Elexpuru, J. M. (2014). *Elorrixoko berbetia*. Elorrio: Elorrioko Udala & Badihardugu Euskara Elkarte.
- Agirrebeña, A., Maiz, B., Muniozguren, F., Sarasua, A. & Zabaleta, M. (2007). *Zarautz hizketan*. Zarautz: Zarauzko Udala.
- Agirrebeña, A., Sarasua, A. & Zabaleta, M. (2017). *Getaiko euskera*. Getaria: Getariako Udala.
- Agirretxe, J. L. & Esnaola, I. (2000). *Lezoko euskararen azterketa*. Lezo: Lezoko Unibertsitateko Udala.
- Agirretxe, J. L., Lersundi, M. & Olaetxea, O. (2000). *Pasaiaiko hizkera*. Pasaia: Pasaiaiko Udala.
- Alberdi, J. (1996). *Euskararen tratamenduak: erabilera* (Iker, 9). Bilbo: Euskaltzaindia.
- Altuna, P. (arg.). (1985). Bonapartek eta Aita Aranek elkarri egin kartak. *Fontes Linguae Vasconum*, 46, 305-341.
- Altuna, R., Elortza, J. & Zumalde, K. (2014). *Oñatiko euskera*. Oñati: Oñatiko Udala.
- Apalauza, A. (2008). *Imozko euskara*. Iruña: Nafarroako Gobernua.
- Apalauza, A. (2012). *Nafarroako ipar-mendebaleko hizkeraren egitura geolinguistikoa*. Iruña: Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia.
- Arana Martija, J. A. (arg.). (1991). *Opera Omnia Vasconice* (4 libk.). Bilbo: Euskaltzaindia.
- Aranberri, F. (1996). *Ermua eta Eitzako euskara*. Ermua: Ermuko Udala.
- Aranzadi Zientzia Elkarte. (1984-1990). *Euskalerriko atlas etnolinguistikoa* (2 libk.). Donostia.
- Areta, N. (2003). *Eibarko euskara: izen sintagmaren deklinabidea*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- Arin, J. & Arruabarrena, J. (1989). *Ataungo aho hizkuntzaren barne muinak* (2 libk.). Donostia: Kriselu.
- Arretxe, J. (1994). *Basauriko euskara*. Basauri: Basauriko Udala.
- Artola, K. (2006-2014). Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan. *Fontes Linguae Vasconum*, 103, 393-428; 104, 5-31; 112, 5-50; 113, 261-325; 114, 5-59; 115, 195-253; 116, 31-89; 117, 25-100; 118, 393-435.
- Artola, K. (2014). *Ziorditik Uztarrozeraino* (3 libk.) (Munibe, 34). Donostia: Aranzadi.
- Artola, K. (2015). Aurizko aldaeraren inguruan (Aurizko eta Orreagako euskararen lagin batzuk). *Fontes Linguae Vasconum*, 119, 61-108.
- Artola, K. (2015-2018). Erroibarko aldaeraren inguruan. *Fontes Linguae Vasconum*, 120, 229-275; 121, 5-66; 122, 245-301; 123, 115-166; 124, 299-354; 125, 7-54.
- Artola, K. (2019). Olaiabarko aldaeraren inguruan. *Fontes Linguae Vasconum*, 127, 249-313; 128, 387-436.
- Artzelus, A. (2019). Garaziko hizkuntza-aldakortasuna geografiaren, adinaren eta generoaren arabera. *Fontes Linguae Vasconum*, 127, 153-188.
- Azketa, S. (2002). *Fikeko berbakera*. Bilbo: Gamiz-Fikako Udala & Bizkaiko Foru Aldundia.

- Azpeitia, A. (2003). *Zestoarren erretolika*. Zestoa: Zestoako Udala.
- Azpiazu, A. (2009). *Gipuzkoako hegoaldeko euskara. Brinkolan jasotako lexikoa eta etnografia gaiak*. Legazpi: Burdinola Elkartea.
- Barrutia, E. (1996). *Bermeo eta Mundakako arrantzaleen hiztegia*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Barrutia, E. (2000). *Bizkaiko arrantzaleen hiztegia*. Bilbo: Labayru Ikastegia & Bilbo Bizkaia Kutxa.
- Basauri, S. & Sarasua, A. (2003). *Eibarko hiztegi etnografikoa*. Eibar: Eibarko Udala.
- Beristain, A. (2018-2019). Azpeitiko euskararen hiztegi dialektal bat. *Fontes Linguae Vasconum*, 125, 7-54; 127, 7-58.
- Bilbao, B. (2002a). *Bermeoko berba eta esamolde kresaltsuak*. Bermeo: Bermeoko Udala.
- Bilbao, B. (2002b). *Bermeoko euskara kresaltsua. Aditza eta fonetika*. Bermeo: Bermeoko Udala.
- Bonaparte, L.-L. (1862). *Langue basque et langues finnoises*. Londres.
- Bonaparte, L.-L. (1867). *Observations sur le formulaire de prône conservé naguère dans l'église d'Arbonne*. Baiona: Lamagnère.
- Bonaparte, L.-L. (1872). *Études sur les trois dialectes basques des vallées d'Aezcoa, de Salazar et de Roncal, tels qu'ils sont parlés à Aribe, à Jaurrieta et à Vidangoz*. Londres.
- Bonaparte, L.-L. (1877). Observations sur le basque de Fontarabie, d'Irun etc. E. Leroux (arg.) *Actes de la Société Philologique*, 6(3), 149-191.
- Bonaparte, L.-L. (1881a). Observaciones sobre el vascuence de algunos pueblos del valle de la Burunda. *Euskal-erria*, 145-151.
- Bonaparte, L.-L. (1881b). Observaciones sobre la ley de la afinidad de las vocales en el vascuence de Lizaso, valle de Ulzama, provincia de Navarra. *Revista Euskara*, 4, 65-70.
- Bonaparte, L.-L. (1881c). Observaciones acerca del vascuence de Valcarlos. *Revista Euskara*, 4, 161-166.
- Bonaparte, L.-L. (1991). Le verbe basque en tableaux. In J. A. Arana Martija (arg.), *Opera omnia vasconice (I)* (pp. 175-442). Bilbo: Euskaltzaindia (Jatorrizko liburuaren argitaratze urtea 1869).
- Burgete, X. & Gaminde, I. (1991). *Otxandioko euskaraz*. Otxandio: Otxandioko Udala; Bizkaiko Foru Aldundia.
- Cabodevilla, J. (1991). *Aetzen uskara*. Iruña: Nafarroako Gobernua.
- Camino, I. (1997). *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*. Iruña: Nafarroako Gobernua.
- Camino, I. (2009). *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi*. Donostia: Elkar.
- Camino, I. (2016). *Amiküzee eskualdeko heskuara*. Iruña: Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia.
- Coyos, J.-B. (1999). *Le parler basque souletin des Arbailles. Une approche de l'ergativité*. Paris: L'Harmattan.
- Daranatz, J.-B. (arg.). (1928-1931). Correspondance du Capitaine Duvoisin. *Revista Internacional de Estudios Vascos*, 19, 58-70, 280-286, 425-433, 449-492; 20, 152-181; 21, 70-97, 334-368; 22, 44-73, 310-337.

- Duhau, H. (1993-2003). *Hasian-basi. Beskoitzeko euskara* (2 libk.). Donibane Lohizune: Alinea & Ahoka.
- Echaide, A. M.^a. (1984). *Erizkizundi Irukoitza / Triple Cuestionario / Triple Questionnaire* (2 libk.) (Iker, 3). Bilbo: Euskaltzaindia.
- Elexpuru, J. M. (2004). *Bergara aldeko hiztegia*. Bergara: Bergarako Udala.
- Elortza, G., Garro, E., Ormaetxea, J. L., Garai J. M. & Plazaola E. (1999). *Arrasateko euskara*. Arrasate: Arrasateko Udala.
- Epelde, I. (2003). *Larresoroko euskara* (doktore tesi argitaragabea). EHU/UPV.
- Erdozia, J. L. (2001). *Sakana erdialdeko euskara*. Iruña: Nafarroako Gobernua.
- Erdozia, J. L. (2004). *Sakanako hiztegi dialektologikoa*. Iruña: Nafarroako Gobernua.
- Errazti, A. (1994). *Iurreta Elizateko euskara eta toponimia*. Iurreta: Iurretako Udala.
- Etxabe, K. & Garmendia, L. (2003). *Zaldibiako euskara: bertako bizimodua, ohiturak eta pasadizoak*. Zaldibia: Zaldibiako Udala.
- Etxabe, K. & Garmendia, L. (2004). *Ordiziako euskara: garai bateko bizimodua eta gaurko hizkuntza-egoera*. Ordizia: Ordiziako Udala & Hitzaro Euskara Elkarte.
- Etxebarria, J. M. (1991). *Zeberio haraneko euskararen azterketa etno-linguistikoa*. Zornotza: Ibaizabal.
- Etxebarria, J. M. (1995). *Gorbeia inguruko Etno-ipuina eta esaundak*. Bilbo: Labayru Ikastegia & Bilbao Bizkaia Kutxa.
- Etxebarria, J. M. (2016). *Gorbeia inguruko Etno-ipuina eta esaundak (II)*. Bilbo: Euskaltzaindia & Deustuko Unibertsitatea.
- Etxegorri, P. (2003). Jeruntzeko üskara. Ekialdeko euskara. *Fontes Linguae Vasconum*, 93, 247-286.
- Etxegorri, P. (2012). *Biarnoko euskaldunak historiaren eta hizkuntzaren bidegurutzean*. Legazpi: Zingizango Legazpiko Euskara Elkarte.
- Euskaltzaindia (2008-). *Euskararen herri hizkeren atlasa [EHHA]* (10 libk.). Bilbo: Euskaltzaindia
- Fraile, I. & Fraile, A. (1996). *Oiartzungo hizkera*. Oiartzun: Oiartzungo Udala.
- Gaminde, I. (1985a). *Aditza bizkaieraz* (3 libk.). Iruña: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Gaminde, I. (1985b). *Aditza ipar goi nafarreraz* (3 libk.). Iruña: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Gaminde, I. (1998). *Euskaldunen azentuak*. Bilbo: Labayru Ikastegia.
- Gaminde, I. (1999). *Bakio barbarik berba*. Bilbo: Bakioko Udala, Labayru Ikastegia & Bilbao Bizkaia Kutxa.
- Gaminde, I. (2000). *Zamudio barbarik berba*. Bilbo: Zamudioko Udala, Labayru Ikastegia & Bilbao Bizkaia Kutxa.
- Gaminde, I. (2001a). *Arrieta barbarik berba*. Bilbo: Arrietako Udala, Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza & Bilbao Bizkaia Kutxa.
- Gaminde, I. (2001b). *Jatabe barbarik berba*. Bilbo: Jatabeko Udala; Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza & Bilbao Bizkaia Kutxa.
- Gaminde, I. (2001c). *Meñaka barbarik berba*. Bilbo: Meñakako Udala & Bizkaiko Foru Aldundia.
- Gaminde, I. (2001d). *Leioa barbarik berba*. Leioa: Leioako Udala.
- Gaminde, I. (2001e). *Mungia barbarik berba*. Mungia: Mungiako Udala & Mungia euskaldunduz.

- Gaminde, I. (2003). *Zaldibar berbarik berba*. Zaldibar: Zaldibarko Udala, Bizkaiko Foru Aldundia & Eusko Jaurlaritza.
- Gaminde, I. (2004). *Berango berbarik berba*. Berango: Berangoko Udala, Bizkaiko Foru Aldundia & Eusko Jaurlaritza.
- Gaminde, I. (2006). *Lezama berbarik berba*. Lezama: Lezamako Udala, Bizkaiko Foru Aldundia & Mendebalde Kultura Alkartea.
- Gilisasti, I. (2003). *Urduliz aldeko berba lapikokoa*. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia.
- Güter, H. (1973). Atlas et frontières linguistiques. In G. Straka & P. Gardette (arg.), *Les dialectes romans de France à la lumière des atlas régionaux*: 61-109. Paris: CNRS.
- Hualde, J. I. (1991). *Basque Phonology*. Londres: Routledge.
- Hualde, J. I. (1997). *Euskararen azentuerak* (ASJÜren gehigarriak, 42). Donostia & Bilbo: Gipuzkoako Foru Aldundia & Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Hualde, J. I. & Bilbao, X. (1992). *A phonological Study of the Basque dialect of Getxo* (ASJÜren gehigarriak, 29). Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Hualde, J. I., Elordieta, G. & Elordieta, A. (1994). *The Basque dialect of Lekeitio* (ASJÜren gehigarriak, 34). Donostia & Bilbo: Gipuzkoako Foru Aldundia & Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Hurtado, I. (2001). *Goierriko eta Tolosalde hegoaldeko hizkerak*. Lazkao: IX. Gerriko Ikerlan Sariketa.
- Ibarra, O. (1995). *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*. Iruña: Nafarroako Gobernu.
- Ibarra, O. (2000). *Erroibarko eta Esteribarko hizkera*. Iruña: Nafarroako Gobernu.
- Ibarra, O. (2007). *Erroibarko eta Esteribarko hiztegia*. Iruña: Nafarroako Gobernu.
- Intza, D. (1922a). Nafarroko aditz-laguntzalea zuketazko esakeran. *Euskera*, 3(2), 65-92.
- Intza, D. (1922b). Burundako euskalkia. *Euskera*, 3(3), 3-42.
- Irigoyen, A. (arg.). (1957). Cartas de Inchauspe al Príncipe Luis Luciano Bonaparte. *Euskera*, 2, 171-260.
- Iturain, I. & Loidi, L. (1995). *Orioko euskara*. Orio: Orioko Udala.
- Izeta, M. (1996). *Baztango hiztegia*. Iruña: Nafarroako Gobernu.
- Labaka, A., Azurza, M. E. & Bereziartua, J. I. (1996). *Lasarte-Oriako euskararen azterketa*. Lasarte-Oria: Lasarte-Oriako Udala.
- Labov, W. (1972). *Sociolinguistic patterns*. Philadelphia: University of Pennsylvania Press.
- Lacombe, G. (arg.). (1932-1933). Lettres du Prince Louis-Lucien Bonaparte à D. A. Campión. *Revista Internacional de Estudios Vascos*, 23, 192-198; 24, 304-313.
- Larramendi, M. (1729). *El imposible vencido. Arte de la Lengua Bascongada*. Faksimilea Donostia: Hordago, 1979.
- Larramendi, M. (1745). *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence y latín* (2 libk.). Donostia: Bartolomé Riesgo Montero.
- Larramendi, M. (1969). *Corografía o descripción general de la Muy Noble y Muy Leal Provincia de Guipúzcoa*. J. I. Telletxea Idigoras (arg.). Donostia: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones.
- Larrañaga, J. (1998). *Antzuolako hizkera*. Antzuola: Antzuolako Udala.

- Larrea, A. & Rekalde, J. (2010). *Arratia inguruko hiztegia*. Bilbo: Ediciones Betra III milenio.
- Lasa, X. (2004). *Urretxu eta Zumarragako euskara*. Urretxu eta Zumarragako udalak.
- Lujanbio, O. (2018). Goizuetako azentu-hiztegia. *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»*, 47(2), 1-86. DOI: <https://doi.org/10.1387/asju.18678>
- Makazaga, J. M. (2010). *Elgoibarko ahozko euskara* (Iker, 25). Bilbo: Euskaltzaindia.
- Mallea, I. (2002). *Mendata, gure geurea danentzat*. Mendata: Mendatako Udala.
- Martínez de la Cuadra, A. (2006). *Nabarniztarren berbakera*. Nabarniz: Nabarnizko Udala.
- Mitxelena, K. (1958). Un vocabulario aezcoano, salacenco y roncalés preparado por el príncipe Bonaparte. *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País*, 14, 335-364.
- Mitxelena, K. (1990). *Fonética histórica vasca* (ASJuren gehigarriak, 4). Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. (Jatorrizko liburua argitaratze urtea, 1961, 2. argitalpena, zuzendua eta osatua, 1977).
- Montoya, E. (2004). *Urdazubi eta Zugarramurdiko euskara*. Iruña: Nafarroako Gobernua.
- Mugarza, P. (2006). *Mallabiko euskara*. Mallabia: Mallabiko Udala, Eusko Jaurlaritza & Bizkaiko Foru Aldundia.
- Navarro, J., Navarro, J. & Andueza, M. L. (2009). *Lizarraga Ergoieneko euskara*. Iruña: Nafarroako Gobernua.
- Oihenart, A. (1656). *Notitia utriusque Vasconiae tum Ibericae tum aquitanicae*. 2. arg., osatua. Berrargitaratua J. Gorosterratzu (itzultzailea) *Revista Internacional de Estudios Vascos*, 17-19 (1926-1928). Faksimilea Gasteiz: Eusko Legebiltzarra, 1992.
- Olano, M. (1998). *Areso eta Leitzako hizkerak*. Leiza: Nafarroako Gobernua, Leitzako Udala & Aresoko Udala.
- Olano, M. (2005). *Aio, Leitze! Leitzako euskararen hiztegia*. Leiza: Leitzako Udala.
- Ondarra, F. (arg.) (1982). Materiales para un estudio comparativo del vascuence de Elcano, Puente la Reina, Olza y Goñi. *Fontes Linguae Vasconum*, 39, 133-228.
- Ormaetxea, J. L. (2006). *Aramaioko euskara (azterketa dialektologikoa)*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Pagola, R. M. (1992). *Euskal fonetika Nafarroan* (2 libk.). Iruña: Nafarroako Gobernua.
- Pagola, R. M. (1993-1999). *Bonaparte ondareko eskuizkribuak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- Pérez, A. (1991). *Bermeoko herri hizkera*. Bilbo.
- Pikabea, J. (2005). *Aginaga. Errioko jarduerak eta bertako hiztegia*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Román, I. (2001). *Berrizko euskara*. Abadiño: Gerediaga Elkarte.
- Ruiz de Larrinaga, J. (arg.). (1954-1958). Cartas del P. Uriarte al Príncipe L-L. Bonaparte. *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País*, 10, 231-302; 13, 220-239, 330-348, 429-452.
- Sagarzazu, T. (2005). *Hondarribiko eta Irungo euskara*. Irun: Alberdania.

- Salaberri, P. & Kamino, P. (2007). *Luzaideko euskararen hiztegia*. Iruña: Nafarroako Gobernua.
- Salaburu, P. (1984). *Hizkuntz teoria eta Baztango euskalkia: fonetika eta fonologia* (2 libk.). Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Salaburu, P. & Lakar, M. (2005). *Baztango mintzoa: gramatika eta hiztegia*. Iruña: Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia.
- Salazar, B. (2001). *Ugaoko euskara*. Bilbo: Ediciones Betra III milenio.
- Santazilia, E. (2009). Luzaideko hizkuntz bariazioa. *Fontes Linguae Vasconum*, 111, 219-248.
- Sarasua, A., Agirrebeña, A. & Zenarruzabeitia, L. (2005). *Eibarko euskara*. Eibar: Eibarko Udala.
- Uriarte, J. (2003). *Fruiztarrak berbetan*. Fruiz: Fruizko Udala, Eusko Jaurlaritza & Bizkaiko Foru Aldundia.
- Urquijo, J. (arg.). (1908-1910). Cartas escritas por el príncipe L.-L. Bonaparte a algunos de sus colaboradores. *Revista Internacional de Estudios Vascos*, 2, 215-221, 655-659; 4, 233-297.
- Yrizar, P. (1981). *Contribución a la dialectología de la lengua vasca* (2 libk.). Donostia: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala.
- Yrizar, P. (1991-2002). *Morfología del verbo auxiliar* (14 libk.). Bilbo: Euskaltzaindia.
- Zelaieta, E. (2008). *Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa*. Iruña: Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia.
- Zuazo, K. (1997). Oiartzungo hizkeraren kokagunea. *Fontes Linguae Vasconum*, 76, 397-425.
- Zuazo, K. (1998). Euskalkiak, gaur. *Fontes Linguae Vasconum*, 78, 191-233.
- Zuazo, K. (2003). *Euskalkiak, herriaren lekukoak*. Donostia: Elkar.
- Zuazo, K. (2006). *Deba ibarreko euskara. Dialektologia eta tokiko batua*. Eibar: Badihardugu Euskara Elkartea.
- Zuazo, K. (2008). *Euskalkiak, euskararen dialektoak*. Donostia: Elkar.
- Zuazo, K. (2010a). *El euskera y sus dialectos*. Irun: Alberdania.
- Zuazo, K. (2010b). *Sakanako euskara. Burundako hizkera*. Iruña: Nafarroako Gobernua eta Euskaltzaindia.
- Zuazo, K. (2012). *Arabako euskara*. Donostia: Elkar.
- Zuazo, K. (2013). *Mailopeko euskara*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Zuazo, K. (2014). *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.
- Zuazo, K. (2017). *Mendebaleko euskara*. Donostia: Elkar.
- Zuazo, K. (2018). *Sarako euskara*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Zuazo, K. (2019). *Standard Basque and its Dialects*. London: Routledge.
- Zuazo, K. & Goiti, U. (2016). *Uribe Kosta, Txorierri eta Mungialdeko euskara*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Zubiri, J. J. & Perurena, P. (1998). *Goizuetako eta Aranoko hizkerak*. Leitza: Nafarroako Gobernua, Goizuetako Udala & Aranoko Udala.

